

2.- INFORMAZIOA

2.1.- LURRALDEA EKONOMIA-GARAPENAREN EUSKARRI FISIKO GISA

Argi eta garbi bereizten diren bi analisi-mailatatik hartu behar da lurzorua - urbanistikoki kalifikatutako lurzorua bereziki- jarduera ekonomikoa garatzeko oinarrizko baldintzatzat .

Lehen ikuspegi batetik, lurzorua neurri handi batean edozein jarduera ekonomikoaren bideragarritasuna zehazten duen "kokapen geografikoko faktoretzat" hartu behar da .

Analisiaren beste maila batean lurzorua ikuspegi zehatzago batetik har daiteke aintzat: lurzoruaren azaleraren hirigintza-kualifikazioa eta kuantifikazioa lurraldearen gune jakin batean garatu beharreko jarduera ekonomikoa baten euskarri fisiko eta funtzionaltzat har daiteke .

Bigarren ikuspuntu honetatik nabarmendu behar da azken hamarkada honetan Euskal Autonomia Erkidegoan goitik behera aldatu dela egoera. Bilakaera teknologiarik esker orain dela gutxira arte pentsaezinak ziren lurraldea aldatzeko obrak planteatu daitezke. Duela 10 urtera arte haranetako hondoetan kokatzen ziren lur lauak aukeratzen ziren lehentasunez industriak ezartzeko; orain, berriz, luraren ezaugarri topografikoek ez dute hainbesteko garrantzirik eta komunikabideekiko hurbiltasuna eta irisgarritasunaren gisako beste alderdi batzuek dute garrantzia.

Dena den, hasierako arrazoibidera itzulita, kokapen geografiko orokorraren alderdiak funtsezkoa izaten jarraitzen du logistika enpresarialerako eta jarduera-arlo berriak finkatzeko hartu beharreko erabakietarako. Horrenbestez, gure lurraldearen ezaugarri orokorrak hartu beharko ditugu aintzat .

Euskal Autonomia Erkidegoak guztira 7.117,3 km²-ko azalera du. Izan ere, lurralde-esparru honek osatzen duen euskarri fisiko honetan oinarrituta planteatu behar da jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatze edozein estrategia politiko eta urbanistikoko. Hori dela-eta, lan honen garapen metodologikoak jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatze edozein irizpideei buruzko argudio-ildoak egituratzeko oinarrizko elementutzat jotzen du lurralde-oinarrria.

EAEko lurraldeak lurralde-banaketaerako lerro nagusi eta garbi bat du: batetik Kantauriar erlaitza eta bestetik Ebro ibaiaren arroa bereizten duen lerroa. Kantabriar mendikatearen iparraldean eta hegoaldean geratzen diren gure Erkidegoko bi aldeak

artean erabateko bereizketa ekonomikoa, demografikoa eta industrialia eragin du XX. mendean bete-betean sartu arte banaketa honek.

Kantauriar isurialdeak oso osaera topografiko gorabeheratsua du eta espazio-baliabide urriko haran estuetan egituratzen bada ere, industria-garapen handia bizi izan zuen XIX. mendean. Metalurgia tradizionalaren jardueretan, Bilboko burdin mehatzeen ustiapenean eta portuetan sortutako jardueretan sustraitu zen industria-mugimendu oparoa garatu zen bertan eta hau guztia laguntza handikoa izan zen gure Erkidegoak gaur egun duen aktibo nagusienetako bat, hau da, ospe handiko enpresa-kultura eta -tradizioa finka zedin.

Haatik, aldi honetan Ebro ibaiaren isurialdeko Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeak industrializazioaz eta industrializazioaren antolamendu ekonomiko eta demografikoaz kanpo jarraitzen zuen eta ohiko landa-jarduerak zituen oinarri.

XX. mendean eta, batez ere, mende honen bigarren erdian errotik aldatu da egoera hau. Kantauriar erlaitzeko hirigune nagusietan gertatzen ziren hirigintza-metaketako sintomen ondorioz, bertako fabrikak hedatzeko espazio-ezaren ondorioz eta beste mota batzuetako arrazoi ekonomiko, politiko eta sozialek eraginda, industria-enpresa askok bere instalazioak Arabako Lautadara lekualdatzea erabaki zuten.

Industrien artean gertatu den lekualdatzeko mugimendu honetan eragin handia izan zuen, inolako zalantzarik gabe, komunikabideen sektoreak izan duen hazkunde azkarrak eta kualitatiboak. Izatez, Gasteiz eta bere ingurunea kokapen estrategikoko gune ari da bihurtzen Iberiar penintsularen barruko azpiegitura-sarearen bilbe orokorraren barruan.-

Etorkezunean ezarpen ekonomiko berriak jasotzeko edo gaur egun daudenak zabaltzeko edo lekualdatzeko espazio-iraganbide edo esparruen azterketari lehen dokumentu-euskarria eskaintzekotan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen espazio-egituraren funtsezko faktoreak islatuko dituen [informazio-mapa aurkezten da, 2.1 zenbakia duena](#).

Komunikabide-azpiegituren oinarrizko sarea eta beren ezaugarri topografikoak eta beren kokapena aintzat hartuta ekonomia-garapenerako egokitzat hartzen diren lurzoruen espazio-esparrua gainjartzean oinarritu da analisia egiteko sistema.

Jakina denez, "lurraldearen interpretazio fisikoko" mapa egiteko erabili diren definizio grafikoko irizpideak gutxi gorabeherakoak dira. 100 metroko kota altimetrikotik behera dauden itsasertzeko lurralde guztietako espazio-erreserbak eta Kantauriar erlaitzeko mendi arteko iraganbideen hondoetan dauden topografia leuneko lurrek osatzen dituzten espazio-esparruak aukeratzeari ekin zaio.

Era berean, Araban dauden enpresa-garapenak finkatzeko egokiak izan daitezkeen lurralde-esparruen mugapena modu adierazgarrian adierazteko espazio-erreserba nagusien ingeradak modelatzen dituzten hainbat kota altimetriko grafiatu da.

Plano honen lehen azterketa batean egiazta daitekeenez, Kantauriar erlaitzeko esparru osoan, orokorrean, eta Nerbioi ibaiaren arroan, itsasertzeko kokaguneetan eta Gipuzkoako lurraldearen osotasunean batik bat, industria-lurzoruen antolamenduari ekin aurretik beste arazo bati egin behar zaio aurre: jarduera ekonomikoetarako egokia

den lurzoria oso ondasun urria eta mugatua da eta gaur egungo hirigintza-garapenak dagoeneko hartua du ondasun hau, neurri handi batean bederen.

Grafikoan argi eta garbi egiazta daiteke Kantauriar erlaitzeko espazio-baliabideak oso urriak direla eta espazio-erreserba nagusiak, oro har, Arabako Lautadan daudela.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoetarako lurzoria antolatzeke Lurraldearen Arloko Planak proposatzen dituen estrategia eta politiken xede izango diren espazio-iraganbideen egitura definitzeko lehen euskarria eskaintzen du plano honek.

2.2.- KOMUNIKABIDEEN OINARRIZKO SAREA

Lurraldearen Arloko Plan honen argudio-azterketa osoa eusten duten egituraren funtsezko alderdietako bat Euskal Autonomia Erkidegoko garraio eta komunikabideen oinarritzko sarea eta berau garatzeko aurreikuspenak dira.

Garraioen oinarritzko sarea interpretatzeko, Lurraldearen Arloko Planak jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren antolamenduari buruzko etorkizunerako proiektzioa proposatu nahi duenez gero, planoan gaur egun dauden komunikabide eta garraioko azpiegiturak ez ezik, aurreikuspenen arabera epe laburrera eta ertainera eraiki beharko diren guztiak ere kontuan hartu dira.

Nolanahi ere, gaur egun ez dauden elementuak eta, kasu batzuetan, proiektaturik ere ez dauden elementuak kontuan hartzeak definizio-akatsak egitea dakar. Dena den, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren erreserbak kokatzeko eta dimentsionatzeko egin behar diren argudioetarako oinarri gisa komenigarriagozat jo da komunikabide eta garraioen sarearen azpiegitura-antolamenduaren irudi bisuala proiektatzea -zehaztasunik ez izan arren- azterketa hauek lurralde-kokapen zehatzik gabe aurkeztea baino.

Etorkizuneko errepide-sarea definitzeko funtsezkotzat jo da Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorrean biltzen diren zehaztapenen transposizioa.

Zehaztapen hauek osatzeko, jadanik epe laburrera edo ertainera burutzea aurreikusten diren hainbat burutzapen barne hartu dira; burutzapen hauek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Errepide Zuzendaritzekin kontsultatu ondoren epe laburrera edo ertainera burutzea aurreikusten diren proiektuak dira hain zuzen ere.

Irizpide hauei jarraituta "Garraio eta komunikabideen Oinarritzko Sarearen interpretazio funtzionala" izeneko 2.2 zenbakiko planoan egin da eta bertan garraio eta komunikabideen azpiegituraren oinarritzko sareetako bakoitzaren elementurik adierazgarrienak irudikatu dira.

Errepide-sarea irudikatzerakoan errepideek industria-jardueraren ikuspegitik duten garrantziaren arabera egindako hierarkia funtzionalaren ebaluazioa barne hartu da.

Sare orokorreko elementuetarako ondoko mailak definitzen dituen irudikapen grafikoa proposatzen da:

- Autobide eta autobien sarea. Elementu hauek irudikatzerakoan garrantzi berezia eskaintzen zaio lotuneak zehazteari, lotune hauek etorkizunean jarduera ekonomikorako poligonoak kokatzeko gune izan daitezkeela hartzen baita aintzat.
- Lehentasuneko interesa duten errepideen sarea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko errepideen oinarritzko sarea.

Jakina, oinarritzko maila hauetan barne hartzen ez diren arren, industria-ezarpen jakin batzuetarako bide-euskarri diren beste hamaika errepide dago. Sare hauetako batzuk ere planoan grafikatuta agertzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sarearen irudikapen grafikoa RENFERen sare nagusia (bere bi linea nagusiak Miranda de Ebro Irun eta Miranda de Ebro Bilbo

eta ezker aldean duten luzapena) eta Euskotren eta FEVE konpainien sareak, industria-jardueraren ikuspegitik hain garrantzitsuak ez direnak, bereizi dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren oinarritzko trazaduraren eskema orientagarria aurkezten da. Nolanahi ere, ez dira adierazten salgaietarako geltokien edo geralekuen balizko kokapenak, aldez aurretik dagoen sarearekiko lotuneak eta jarduera ekonomikorako erabil daitezkeen lurraldearen eremuko espazio-okupazioko aurreikuspenak.

[2.2 zenbakiko maparen bitartez jarduera ekonomikoa bideratzen duten iraganbideak osatzen dituzten azpiegitura nagusiak definitu nahi dira](#); izan ere, jarduera ekonomikorako ezarpenek iraganbide hauen aldamenen kokatzeko joera izango dute. Komunikabide eta garraioen azpiegitura orokorraren funtsezko elementu fokalak jasotzen dira, hauen inguruan biltzen baitira jarduera ekonomikoa eta industria-jarduera zuzentzen duten guneak eta bertan gertatzen baitira hirugarren sektorerako lurzoruen eskari handiak.

Portuen sistema orokorra irudikatzen da: Bilboko portua eta Pasaiaiko portua eta arrantza-jardueraren oinarri diren Bermeo, Ondarroa eta Getariako portu txikiak.

Aireportuen sistema orokorrean Sondikako aireportua (Bilbo), Forondako aireportua (Gasteiz) eta Hondarribiko aireportua (Donostia) barne hartzen dira. Hondarribiko aireportuak dituen mugak direla-eta, Miarrizko aireportua ere kontuan hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko airetikoko garraioeko zerbitzuaren eskaintzan.

Berriki hainbat ekimen gauzatu da Euskal Autonomia Erkidegoan garraiorako zerbitzугuneei dagokienez. Zehazki ondoko ekimenak jarri dira abian:

- Irungo Zaisa Poligonoa. Irunen salgaien garraioarekin lotzen diren ahalik eta jarduera gehien gorde nahi da, hala aduana desagertzeak izan duen eragina konpentsatzeko.
- Oiartzungo Aparcaguisa poligonoa. N 1 eta A 8 errepideei lotzen zaien kamioientzako aparkalekua.
- Trapaga-Barakaldoko Aparcabisa poligonoa. Errepidean zeharreko garraio-terminala. Abian da.
- Vitoria-Gasteizko Garraio Zentroa. Errepidean zeharreko Jundizko garraio-terminala.
- Modalitate arteko Jundizko geltokia. Trenbide-garraioarekin modalitate arteko konexioa du.

Gas Naturala Garraiatzeko eta Banatzeko Sarearen gasbide nagusiaren trazadura eta Euskal Herriko Telekomunikabideen Sare berria ere kontuan hartzen dira. Bi azpiegitura hauek lehenetsuneko ekonomia-garapeneko ildoak osatzen dituzten elementuak dira.

Informaziozko laburpen-mapak Euskal Autonomia Erkidegoaren oinarritzko azpiegitura-euskarria definitzen laguntzen du. Izan ere, funtsezko azpiegitura-oinarri honen inguruan metatzen da jarduera ekonomikoa, honetatik bideratzen da jarduera ekonomikoa eta honetarantz joko du lehenetsunez -aurreikuspenen arabera eta lurralde-antolamenduari buruz ezar daitezkeen eredu teorikoa edozein izanik ere- enpresa-garapenetarako lurzoru berriaren eskariak.

Garraio eta komunikabideen oinarrizko sarearen balorazioa edozein izanik ere, Lurraldearen Arloko Plana lantzerakoan arreta berezia eskaini zaio zerbitzuko gainerako azpiegituren gaia aztertzeari ere.

Uraren Ziklo Integralari (ur-hornidura eta hondakin-uren saneamendua), energia elektrikoaren hornidurari, hondakin solidoak ezabatzeari, gasaren hornidurari eta telekomunikabideen sareari buruz erabilitako informazioak eta balorazioak ez dira, ordea, esplizituki garatzen bertan, dokumentu hau egiteko erabili diren laguntzarako arloko lanetan jasotzen dira-eta.

2.3.- BIZTANLERIAREN ETA ENPLEGUAREN KOKAPENA

▶ **INFORMAZIO-OINARRIAK**

● **Hasierako inbentarioa**

"Biztanleriaren, enpleguaren eta jarduera ekonomikoetarako lurzoria behar duten enpresen inbentarioa" izeneko dokumentua egin da azterlan honetarako berriazko lan osagarri gisa.¹

Lan honetan Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako bakoitzeko fitxa bat egin da.

Udal Fitxa bakoitzean biltzen den informazioa bost atal berezietan egituratzen da.

- **Datu demografikoak:** 1986-96 aldian udalerririk biztanleriari dagokionez izan duen bilakaera jasotzen du, datu hauek biztanleria-erroldeetatik atera dira². Osagarri gisa 1998ko udal-erroldearen datuak ere biltzen dira.
- **Biztanleria landuna versus dauden enpleguak: atal honetan 1996ko biztanleria-erroldearen informazioetik ateratako ondoko datuak jasotzen dira:**
 - Udalerririk, lehen sektorean, bigarren sektorean eta zerbitzuetan hurrenez hurren sortzen dituen enpleguak (laneko udalerririk araberako biztanleria landuna).
 - Aipatutako hiru sektoreetan lan egiten duten udalerririk biztanleak (bizitoki-udalerririk araberako biztanleria landuna).
 - Eta bi zenbateko hauen arteko koefiziente bidez pertsona landun bakoitzeko udalerririk sortutako enpleguen indizea eskaintzen da eta indize hauek arloen arabera zehaztu dira. Indize honek udalerririk orokorrean sortutako enpleguei dagokienez superabita edo defizita duten adierazten du eta, aldi berean, beren arloko espezializaziorako hurbiltze objektiboa eskaintzen du.
- **Lan-merkatuaren datuak:** informazio-iturri gisa 1996ko biztanleria-erroldearen datuak hartuta, biztanleria aktibo, landun eta langabeari buruzko datuak eta zenbateko horietan jasotzen den langabezia-tasari buruzko udal-agregatuak biltzen dira. Informazio hau osatzeko 1998an erregistratutako langabeziaren zenbatekoak aurkezten dira (INEMek eskainiak).
- **Industria-lurzoria behar duten enpleguak eta ezarpenak:** atal honetan udalerririk bakoitzeko industria-lurzoria behar duten enpresa-ezarpenen kuantifikazioa, tamainaren araberako sailkapena eta aintzat hartutako enplegu-tarteetako bakoitzean sortzen duten enplegu-bolumena azaltzen da.

Industria-lurzoria behar duten jarduera ekonomikoen artean ondokoak barne hartzen dira: industria-jarduerak orokorrean, handizkako

¹ IKERTALDE. Aholkularitza-taldea. 2000ko ekaina

² Izatezko biztanleria

merkataritzari dagozkion hirugarren sektoreko jarduerak, merkataritzako azalera handietan egiten den txikizkako merkataritza, konponketak, garraioa eta komunikabideak.

Informazioa zenbait lurralde eta arlotako enpresa-direktorioetatik lortu da eta informazioa gurutzatu eta egiaztatuta egin da.

- **50 enplegutik gorako enpresen zerranda, jarduera-sektoreen arabera:** fitxaren amaieran 50 enplegutik gora dituzten eta industria-lurzorua behar duten enpresa-ezarpenen zerranda, jarduera ekonomikoaren arabera egituratuta, jasotzen da.

Udal-fitxen agregazioaren bitartez, azpieskualde edo eskualdeen araberako laborpen-fitxak, eskualde-egituren araberako laborpen-fitxak, Lurralde Historikoen araberako laborpen-fitxak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunerako laborpen-fitxak lortu dira.

Lan hau burututakoan, azken biztanleria-errolak, 1996koak alegia, eskaintzen zuen denbora-esparrua gainditzeko eta 1999an aztergai dugun lanari dagokionez informazioaren alderdirik esanguratsuenen estrapolazioa egiteko interesa antzeman zen. Izan ere, 97-99 aldian Euskal Autonomia Erkidegoak bizi zuen ekonomia-gorakada nabarmenaren ondorioz, beharrezkoa suertatzen da bigarren sektorean lanean diharduen biztanleria landunari buruzko datuak eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua behar duten enpleguen kopuruaren zenbatespenari buruzko datuak eguneratzea. 1999rako estrapolazioak informazio hau eta 2000. urtera arte eguneratuta dagoen jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren inbentarioaren datuak gurutzatzea ahalbidetzen digu.

- **Informazio osagarria**

Prestatutako gizarte eta ekonomiari buruzko informazio-bankuak udalerrira hartu du lanerako oinarritzko unitate gisa eta oinarritzko unitate honetatik abiatuta gorako informazioa gaineratuko da espazio-maila desberdinetan: azpieskualdeak, eskualdeak, Lurralde Historikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoa. Ezaugarri hauek dituen proiektu bati zuhurtasunez ekiteko ezinbestekoa den planteamendu honek, ordea, eskura dagoen udalerrietako informazio mugatua du eragozpen; lurralde-maila agregatutagoetan baino askoz ere urriagoa da eta lau urteko biztanleria-erroldekin lotu ohi da³ (berriena 1996. urtekoa da). Ildo honetan eta prestatutako informazio-bankuaren gainean garatutako azterlanari abiapuntu izanik, hainbat gai zabaltzea edo osatzea eskatzen duten esparru jakin batzuk identifikatu dira:

- a) lan-merkatuari dagozkion datuak eguneratzeko ahaleginean sakontzeko beharra Arestian aditzera eman denez, esparru honetako udal-informazioak 1996an egin zen azken biztanleria-erroldekoak dira eta, hortaz, ez zuten Euskal Autonomia Erkidegoak laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdian, batik bat 1997, 1998 eta 1999. urteetan, bizi zuen ekonomia-gorakada nabarmena jaso.
- b) azterlanari 10 enplegu baino gutxiago dituzten eta industria-lurzorua behar duten enpresa-ezarpenen zenbatekoak gaineratzeko

³ Hasiera batean bildutako informazioak ondoko eskemari jarraitzen zion:

- Biztanleria. Iturria: 1998ko udal-errola. INE
- Lan-merkatuaren datuak. Iturria: 1996ko biztanleria-errola (Bizitokiko eta laneko udalerrien araberako biztanleria landuna eta hauen arloko banaketa; biztanleria langabea eta biztanleria aktiboa).
- 10 enplegu baino gehiago dituzten eta industria-lurzorua kontsumitzen duten ezarpenak eta enpleguak. Iturria: IKERTALDE 1999 (enpresa-ezarpenen direktorioak gaineratzea)

komenigarritasuna⁴, azken urte hauetan enpresa berrien bitartez sortutako enpleguaren eta jarduera ekonomikoaren zati handi bat atal honetakoa baitzen.

⁴ Halakotzat hartu dira industria-jarduera guztiak, handizkako merkataritza eta konponketak, merkataritza-azalera handietako txikizkako merkataritza eta garraioak eta komunikabideak.


• **Lan-merkatuaren datuak 1999ra eguneratzea**

1987-91 aldian gertatu zen ekonomia-hazkunde nabarmenaren ondoren, hamarkadak bi ziklo nabari izan ditu enpleguari dagokionez. Laurogeita hamarreko hamarkadaren lehen erdian behera egin zuen enpleguak eta bigarren erdian arian-arian egin du gora enpleguak. 1998 eta 1999. urteetan gorakada oso nabarmena izan da eta urte horietan, haiz zuzen ere, izan dira Euskal Autonomia Erkidegoko landunen datuan bi gehienezko historikoak, 779.800 eta 813.400 pertsona landun, hurrenez hurren.

	1985	1991	1994	1996	1999
BIZTANLERIA LANDUNA	656,4	755,9	639,5	724,2	813,4
Lehen sektorean	33,1	25,8	23,4	24,7	18,9
Industrian	268,1	247,2	197,7	208,1	239,8
Eraikuntzan	37,4	63,4	64,8	59,6	67,8
Zerbitzuetan	317,9	419,5	407,6	431,8	487,0

Iturria: PRA-EUSTAT
Egina: IKERTALDE, aholkulari-taldea

INDUSTRIAN ETA ZERBITZUETAN LAN EGITEN DUEN
BIZTANLERIAREN BILAKAERA



Bilakaera honetan 1996ko biztanleria-errolatik ateratzen diren gizarte eta lanari buruzko datuen informazioa abiapuntutzat hartuta egin daitezkeen azterketen mugak antzeman daitezke eta muga hauek areagotu egiten dira industrian bereziki oinarritzen den arloko ikuspegitik.

Izan ere, euskal ekonomiaren hirugarren sektorerako prozesu azkarra elkarren aurka dauden baina osagarriak diren bi joeratan oinarritu da. Zerbitzu-sektorean lan egiten duen biztanleriak etengabe egiten zuen gora⁵; industria-sektorean, aitzitik, lan egiten duen biztanleriak behera egiten zuen eta 1985. urteaz geroztik ia etenik gabe ari zen industrian lan egiten zuten langileen kopurua jaisten⁶, prozesu honek 90eko hamarkadaren erdira arte jarraitu zuen, 1995ean bizi zen hedapen orokorrak ere eragina izan baitzuen industria-sektorean. Orduz geroztik eta laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdi osoan industrian lan egiten duen biztanleriak sistematikoki egin du gora, 1991ko maila berreskuratu ez badu ere. Horrenbestez, 1996ko udal-informazioaren iturriaren egokitasuna auzitan jartzen da industriaren ikuspuntutik, iturri honek ez baitu industriak hamarkada batez baino gehiagoz bizi izan zuen beherako joera errotik aldatu izana islatzen.

⁵ 1992 eta 1993 ekitaldietan soilik geldotu zen prozesua.

⁶ 1989-90 urteetan bizi zen gorakada izan ezik.

Muga hau ebazteko 1996ko biztanleria landunari buruzko udal-zenbatekoak 1999ra eguneratu behar izan dira eta horretarako 1999rako lurralde-maila agregatuagoetan (eskualdeetan) lanari buruz eskura dauden informazioak hartu dira oinarri, 1996ko udal-informazioaren proiektzioa erreferentzia gisa erabilia⁷.


• **10 enplegu baino gutxiago duten bigarren sektoreko ezarpenak azterketan gaineratzea.**

Arrazoiketaren ildo beretik, laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdiko enpresa-dinamika 10 enplegu baino gutxiago duten enpresa-ezarpenetan oinarritu da neurri handi batean bederen. Hortaz, 1997ko eta 1999ko enpresa-egituraren zenbatekoak aztertuz gero, aldi horretako enpresa-ezarpenen gehikuntza garbiaren %87,5 10 enplegu baino gutxiago duten ezarpenetan gertatu dela antzematen da.

Enplegu-tarteak	Eraitza
10 baino gutxiago	58,5
11tik 50era	35,1
50 baino gehiago	6,4
GUZTIRA	100,0

Iturria: IKERTALDE aholkularitza-taldea.

1998-1999 BIURTEKOAN SORTUTAKO EZARPENEN SALDO GARBIAREN BANAKETA,
ENPLEGU-KOPURUAREN ARABERA



Aurreko zenbatekoetan eta grafikoetan antzematen denez, dinamika honen intentsitatea dela-eta beharrezkoa da azken urte hauetan ezarpenen eta enpleguen atala bigarren sektoreko oinarritzko erreferentziatzat hartzea. Lan-merkatuaren beste datu batzuekin ez bezala, kasu honetan informazio-osagarri honek ez du inolako zailtasun metodologikorik, 1999rako eskura dauden informazioei esker (askotariko ezarpenen direktorioak) enpresa-alderdi hori eta dagokion enplegua tarteko lan-prozedurarik egin beharrik gabe informazio-bankuan barne har daitezke-eta.

⁷ Aipatutako informazio-iturriak (1996ko biztanleria-errola eta 1999ko eta 1996ko lan-merkatuaren errola) abiapuntu izanik, jarraitutako prozedurak lau funtsezko fase hartu zituen aintzat:

1. Industria-sektorean lan egiten duen biztanleriaren eta guztizko biztanleriaren 1996ko biztanleria-errolako udal-datuak eskualde-mailan hartzea, lan-merkatuaren errolak duen eskualde-izaerari jarraituta.
2. Biztanleria landunari eta industrian lana duen biztanleriari dagokionez, udalerrri bakoitzak lan-merkatuaren errolako eskualdean duen pisu erlatiboa lortzea.
3. Udal-mailako pisu erlatibo hauek eskualdeek 1999an azaltzen zuten guztizko landunen kopurura eta industrian lan egiten dutenen kopurura eramatea.
4. 1996 eta 1999ko lan-merkatuaren erroldetako eskualde-mailako bilakaeraren ratioak abiapuntu izanik, lortutako udal-emaizten aukerako berdintzea.

Aurreko zenbatekoetan eta grafikoetan antzematen denez, dinamika honen intentsitatea dela-eta beharrezkoa da azken urte hauetan ezarpenen eta enpleguen atala bigarren sektoreko oinarrizko erreferentziatzat hartzea. Lan-merkatuaren beste datu batzuekin ez bezala, kasu honetan informazio-osagarri honek ez du inolako zailtasun metodologikorik, 1999rako eskura dauden informazioei esker (askotariko ezarpenen direktorioak) enpresa-alderdi hori eta dagokion enplegua tarteko lan-prozedurarik egin beharrik gabe informazio-bankuan barne har daitezke-eta.

- **Emaitzazko zenbatekoak**

Arestian adierazitako lan-prozesuen bitartez ondoko alderdiak zenbatetsi dira 2000. urterako:

- **Bigarren sektorean lan egiten duen biztanleria:** udalerri bakoitzean bizi den eta bigarren sektorean lan egiten duen biztanleria.
- **Jarduera ekonomikoetarako lurzoria behar duten enpleguen kopurua:** udalerri bakoitzean industria, handizkako merkataritza, konponketa, merkataritzako azalera handietako txikizkako merkataritza eta garraio eta komunikabideetako merkataritzaren sektoreetan sortzen diren enpleguak. Oinarrizko dokumentuan eskura dagoen informazioarekin alderatuta, hemen 10 langile baino gutxiagoko ezarpenei dagozkien enpleguak ere barne hartzen dira.

Bi alderdi hauen udal-mailako datuak aurkezten dira eta udal-lurraldeko fitxen bitartez eta "*Biztanleriaren, enpleguaren eta jarduera ekonomikoetarako lurzoria behar duten enpresen inbentarioaren*" oinarrizko dokumentuan erabili diren eskualde-agregazioen arabera egituratuta daude. Ondoren laburpen gisa Euskal Autonomia Erkidegoko osotasunaren taula orokorra barne hartzen da, betiere eskualde-egituren eta azpieskualdeen arabera bereizita.

EAE

**BIZTANLERIA GUZTIRA, BIGARREN SEKTOREAN LAN EGITEN DUEN BIZTANLERIA
ETA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA BEHAR DUTEN ENPLEGUEN KOPURUA
ESKUALDE-EGITUREN ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA 2000N**

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	BIZTANLERIA GUZTIRA (Biztanle-kop.)	BIZTANLERIA LANEAN BIGARREN SEKTOREAN (Lan eg. kop.)	ENPLEGU-KOP. JARD. EKON. LURZORUAN (Enplegu-kop.)
ARABA ERDIALDEA	242.447	42.091	46.775
ARABAKO LAUTADA	8.370	1.558	1.500
VITORIA-GASTEIZ AZPIESKUALDEA	221.025	38.473	40.500
GORBEIA INGURUAK	5.665	1.034	3.025
ARABAKO HARANAK	4.278	489	1.475
ARABAKO MENDIALDEA	3.109	537	275
AIARA	39.138	8.634	8.675
ARABAKO ERRIOXA	9.697	1.454	2.750
ARABAKO LH GUZTIRA	291.282	52.179	58.200
ARRATIA	11.518	2.414	4.250
BILBO METROPOLITARRA	912.014	108.151	103.675
KANPOKO PORTUA	-	-	-
ITSASADARRA ETA EZKERRALDEA	298.433	40.512	27.268
BILBO	358.467	33.142	37.275
LEIOA-PLENTZIA IRAGANBIDEA	136.659	14.741	8.225
TXORIERRI	16.579	2.824	12.582
NERBIOI BEHEREA	101.876	16.932	18.325
DURANGALDEA	68.474	14.834	17.675
ENKARTAZIOAK	29.623	3.709	1.775
BUSTURIALDEA-ARTIBAI	70.785	11.915	8.900
URDAIBAI	44.271	6.800	4.950
LEA - ARTIBAI	26.514	5.115	3.950
MUNGIA	19.668	3.180	4.375
BIZKAIKO LH GUZTIRA	1.112.082	141.023	136.275
DEBAGOIENA	63.238	17.696	21.375
DEBABARRENA	74.425	16.804	14.350
DONOSTIALDEA-BETERRI	384.089	49.993	46.075
BIDASOA BEHEREA	69.742	10.681	9.200
OARSOALDEA	71.432	10.139	8.900
DONOSTIA	178.229	17.218	13.875
DONOSTIALDEKO H-M	64.686	11.955	14.100
GOIERRI	65.624	15.176	14.375
ORIA GARAIA	39.348	8.963	9.775
UROLA GARAIA	26.276	6.213	4.600
TOLOSERRI	42.960	8.589	8.417
UROLA-KOSTA	64.584	13.440	12.950
GIPUZKOAKO LH GUZTIRA	694.920	121.698	117.542
EAE GUZTIRA	2.098.284	314.900	312.017

► **BIZTANLERIAREN ETA BIGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN KOKAPENA**

Biztanleriaren eta bigarren sektoreko enpleguen kokapenari buruzko informazioa ere garrantzi handikoa da. Informazio hau udalerrri bakoitzerako egindako dokumentu-fitxetatik atera da. Aipatutako datuak mapan jasotzeko, Euskal Autonomia Erkidego osoaren lurralde-esparruko pisu demografikoaren eta bigarren sektoreko enpleguaren pisuaren lurralde-esleipena egin da.

["Biztanleriaren eta bigarren sektoreko enpleguaren lurralde-banaketa" izeneko 2.3 mapan](#) eskualde-egitura bakoitzeko biztanleria (1998ko eguneratzea) grafiatu da eta, horretarako, 100.000 biztanle edo frakzio bat irudikatzen duten lauki bidez kokatu da gutxi gorabehera biztanleria lurraldean. Era berean, bigarren sektorean dauden enpleguak (2000ko eguneratzea) industriako 1.000 enplegu edo frakzio bat irudikatzen duten zirkulu bidez kokatu dira espazioan.

Mapa honen bitartez, informazio-izaera duten beste mapa batzuen bitartez eta gainjartze bidezko metodologia baten bitartez, espazio-baliabideak eta azpiegitura-zerbitzuak dituzten eta biztanleria edo industria-instalazio finkatuek dagoeneko hartu dituzten guneetatik hurbil dauden Euskal Autonomia Erkidegoko eremuak (jarduera ekonomikoetarako poligono berriak ezartzeko beharbada lehentasunezko interesa dutenak) sistematikoki kokatu dira.

2.4.- LURZORU PLANIFIKATUAREN, LURZORU OKUPATUAREN ETA LURZORU-ERRESERBEN INBENTARIOA

Honako LAP hau idazteko lan lagungarri nagusietako bat jarduera ekonomikoetarako lurzuaren inbentarioak eguneratzea izan da eta, hauetan, industria-kualifikazioa duten lurzoriez gain, hirugarren sektoreko jardueretarako, enpresa-zerbitzueterako, azalera handiko merkataritzaguneetarako eta jarduera ekonomikoa berrietarako kalifikatutako lurzuak ere barne hartzen dira. Lurzoru horiek guztiak, era berean, okupatuetan eta libreetan banantzen dira.

Inbentarioak egiteko erabili den oinarritzko irizpidea plangintzaren behin betiko onespena duten lurzuak soilik konputatzea izan da.

Lurzoru okupatutzat dagoeneko industria-jarduerak dituzten lurzuak eta jarduera berriak ezartzeko jadanik hitzemandako eremuak daude.

Ondoren Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-egituretan eta azpieskualdeetan dauden jarduera ekonomikoetarako lurzoru guztien eta, lurzoru okupatu eta okupatu gabe gisa, hauen banantzearen laburpen-taula aurkezten da (03-12-31n eguneratua. Udalplan 2004).

Laburpen-taulan islatzen den moduan, Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunean jarduera ekonomikoetarako lurzuaren azalera guztira 12.590 ha-koa da, hauetako 8.392 ha okupatuta dago eta 4.198 ha lurzoru libreak dira.

Industria-kalifikazioa duten okupatu gabeko lurzoru hauen erreserbak egoteak, sarritan, ez du esan nahi berehala okupatzeko eskura dagoen lurzuaren eskaintza dagoenik. Izan ere, Bizkaian eta Gipuzkoan okupatu gabe gisa inbentariatutako lurzoru zati handi bat ez da ondoko arrazoi hauetako batengatik eskaintza erreala:

- Birmoldatu beharreko industria-instalazio zaharrituei dagozkie.
- Etorkizunean egin ditzaketen zabaltzeetarako erreserba gisa gordetzen dituzten enpresenak dira.
- Ebatzi gabeko hirigintza-kargak dituzten lurzoru marjinalak dira.
- Topografiari dagokionez desegokiak diren lurzuak dira.
- Kutsadura handiko lurzoru libreak dira.
- Ekonomikoki bideraezinak diren azpiegitura-arloko esku-hartzeak behar dituzten eremuak dira.
- Ez dute garapeneko hiri-plangintzarik.
- Urbanizatu gabe daude.
- Lurzoruaren jabeek oso prezio handia eskatzen dutenez gero, eskuraezinak dira.

Arabako Lurralde Historikoan herri-administrazioak berak (Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak...) sustatu ohi ditu poligonoak eta, hala ere, lurzoru operatiboen erreserba adierazgarriak daude.-

Laburpen grafiko gisa, "[Jarduera ekonomikoetarako lurzuaren inbentarioa](#)" izeneko 2.4 mapan, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera ekonomikoetarako hirigintza-kalifikazioa duten lurzoru guztien lurralde-egoera irudikatzen da. Sinbolismo grafikotzat lurzoru kalifikatuko 5 ha-ko azalera lauki batez irudikatuko da. Lauki bakoitza gutxi gorabehera dagokion espazio-kokapen zehatzean jartzen saiatu da; nolanchi ere, eskala ez da zehatz-mehatz gorde, handitu egin da. Lurzoru okupatuari dagozkion laukiek kolore bat dute eta okupatuta ez dagoen lurzoruari dagozkionak, berriz, beste kolore bat.

EAE

**JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORU OKUPATUA, LIBREA ETA GUZTIZKOA
ESKUALDE-EGITUREN ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA 2003AN***

AZPIESKUALDEA / UDALERRIA	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA (Azalera ha-tan)		
	OKUPATUA	LIBREA	GUZTIRA
ARABA ERDIALDEA	2.163,79	1.525,58	3.689,37
ARABAKO LAUTADA	254,17	172,80	426,97
VITORIA-GASTEIZ AZPIESKUALDEA	1.448,81	1.136,36	2.585,17
GORBEIA INGURUAK	255,09	71,14	326,23
ARABAKO HARANAK	185,05	97,66	282,71
ARABAKO MENDIALDEA	20,67	47,62	68,29
AIARA	320,74	112,55	433,29
ARABAKO ERRIOXA	171,20	127,99	299,19
ARABAKO LH GUZTIRA	2.655,73	1.766,12	4.421,85
ARRATIA	105,23	59,87	165,10
BILBO METROPOLITARRA	2.153,71	812,56	2.966,27
KANPOKO PORTUA	121,00	281,00	402,00
ITSASADARRA ETA EZKERRALDEA	938,28	301,20	1.239,48
BILBO	89,43	12,77	102,20
LEIOA-PLENTZIA IRAGANBIDEA	157,62	83,07	240,69
TXORIERRI	368,55	90,98	459,53
NERBIOI BEHEREA	478,83	43,54	522,37
DURANGALDEA	509,66	247,14	756,80
ENKARTAZIOAK	85,46	78,67	164,13
BUSTURIALDEA-ARTIBAI	189,52	71,54	261,06
URDAIBAI	116,97	39,60	156,57
LEA - ARTIBAI	72,55	31,94	104,49
MUNGIA	102,15	52,76	154,91
BIZKAIKO LH GUZTIRA	3.145,73	1.322,54	4.468,27
DEBAGOIENA	404,60	173,80	578,40
DEBABARRENA	281,72	102,16	383,88
DONOSTIALDEA-BETERRI	1.007,91	416,19	1.424,10
BIDASOA BEHEREA	203,85	118,44	322,29
OARSOALDEA	267,02	108,23	375,25
DONOSTIA	177,37	91,83	269,20
DONOSTIALDEKO H-M	359,67	97,69	457,36
GOIERRI	383,83	148,09	531,92
ORIA GARAIA	268,75	100,59	369,34
UROLA GARAIA	115,08	47,50	162,58
TOLOSERRI	188,52	111,03	299,55
UROLA-KOSTA	323,85	158,21	482,06
GIPUZKOAKO LH GUZTIRA	2.590,43	1.109,48	3.699,91
EAE GUZTIRA	8.391,89	4.198,14	12.590,03

* 03-12-31n eguneratuta. Udalplan 2004

2.5.- SUSTAPEN PUBLIKORAKO ESKU-HARTZEAK

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan guztiz onartzen da gizartean eragina izateko esku-hartzerik garrantzitsuenetako bat jarduera ekonomikoetarako lurzorua sustatzea dela, planteatzen den gizarte eta ekonomiaren arloko politikaren profila edozein izanik ere.

Hori dela-eta, Udalek beren udalerrietan industria-lurzorua garatzeko sortu dituzten tokiko sozietate publiko ugari horiez gain, jarduera ekonomikoetarako lurzorua garatzen eta sustatzen espezializatuta dauden zenbait erakunde daude Euskal Autonomia Erkidegoan:

- SPRILUR. Eusko Jaurlaritzako Industria Saila.
- ARABA GARAPEN AGENTZIA. Arabako Foru Aldundia.
- BIZKAILUR. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Departamentua.

Hirurogeiko hamarkadan eta hirurogeita hamarreko hamarkadan Bizkaiko eta Gipuzkoako enpresak Gasteiz eta Laudiorantz lekualdatzeko prozesu garrantzitsua bideratu zuten Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren politika aitzindariari Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia gaineratu zitzaizkion 1982. urteaz geroztik; lehena, SPRI sozietatearen bitartez eta INDUSTRIALDEAK programa enblematikoaren garapenaren bitartez eta, bigarrena, ELKARTEGIAK programaren bitartez.

Prozesu hau zehatz-mehatz aztertu nahi izanez gero, 1994. urtean hasiera batean onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoetarako lurzoruari buruzko Lurraldearen Arloko Planaren dokumentuan gai horren inguruan garatutako berriazko informazio-epigraferak jo daitezke.

Eguneratutako informazio-laburpen gisa, [Euskal Autonomia Erkidegoan industria-lurzoru publikoa sustatzeko garatu diren jardun nagusiak zerrendatzen dira. 2.5 mapan](#) Euskal Autonomia Erkidegoan duten banaketa geografikoa islatzen da.

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORU PUBLIKOA
SORTZEKO ESKU-HARTZEAK
ARABA

	JARDUNA	UDALERRIA	ERAKUNDE SUSTATZAILEA	AZAL. GORDINA HA
1	TEKNOLOGI ELKARTEGIA	GASTEIZ	AFA/SPRI/UDALA	120
2	SARATXO POL.	AMURRIO	AFA/AGA/UDALA	54
3	MURGA POL.	AIARA	AFA/AGA/UDALA	28
4	GOJAIN POL.	LEGUTIO	AFA/AGA/UDALA	161
5	ARAIA POL.	ASPARRENA/DONEMILIAG A	AFA/AGA/UDALA	150
6	LITUTXIPI POL.	AGURAIN	AFA/AGA/UDALA	22
7	LANTARON POL.	LANTARON	AFA/AGA/UDALA	97
8	BETOÑO POL.	GASTEIZ	UDALA	97
9	GAMARRA POL.	GASTEIZ	UDALA	95
10	ARRIAGA POL.	GASTEIZ	UDALA	156
11	ALI GOBEO POL.	GASTEIZ	UDALA	154
12	JUNDIZ POL.	GASTEIZ	UDALA	600
13	INDUSTRIALDEA	AIARA	SPRI/AFA/UDALA	4
14	INDUSTRIALDEA	OKA-IRUÑA	SPRI/AFA/UDALA	1
15	INDUSTRIALDEA	AIARA	SPRI/AFA/UDALA	1
16	INDUSTRIALDEA	KANPEZU	SPRI/AFA/UDALA	1
17	INDUSTRIALDEA	AGURAIN	SPRI/AFA/UDALA	1
18	INDUSTRIALDEA	LEGUTIO	SPRI/AFA	2
19	ELKARTEGIA	AIARA	DFA/UDALA	1
20	ALDAITURRIAGA POL.	AMURRIO	UDALA	10
21	INDUSTRIALDEA	AMURRIO	SPRI/AFA/UDALA	7
22	GARRAIO-ZENTROA	GASTEIZ	AFA/UDALA	62
23	INDUSTRIALDEA	GAUBEA	SPRI/AFA/UDALA	5
24	CASABLANCA POL.	LAGUARDIA	AFA/AGA/UDALA	43
25	EL CARRASCAL POL.	LANTZIEGO	AFA/AGA/UDALA	20
26	ILU 1, 3 eta 4	AGURAIN	AFA/AGA/UDALA	80

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORU PUBLIKOA
SORTZEKO ESKU-HARTZEAK
BIZKAIA

	JARDUNA	UDALERRIA	ERAKUNDE SUSTATZAILEA	AZAL. GORDINA HA
1	TEKNOLOGI ELKARTEGIA	ZAMUDIO/DERIO	SPRI/BFA/UDALA	118
2	LANDABASO POL.	BERMEO	SPRI/PROG/UDALA	4
3	INDUSTRIALDEA	ABANTO-ZIERBENA	SPRI/BFA/UDALA	10
4	INDUSTRIALDEA	IGORRE	SPRI/BFA/UDALA	5
5	INDUSTRIALDEA	GIZABURUAGA	SPRI/BFA/UDALA	6
6	EL CAMPILLO POL.	ABANTO-ZIERBENA	UDALA	48
7	BELAKO	Mungia.	BFA	1
8	ELKARTEGIA	ALONSOTEGI	BFA	2
9	ELKARTEGIA	LARRABETZU	BFA	1
10	ELKARTEGIA	TRAPAGA	BFA	2
11	BIC-BEAZ	SONDIKA	BFA	1
12	INDUSTRIALDEA	GERNIKA	SPRI/BFA/UDALA	3
13	EL PARAMO POL.	BALMASEDA	SPRI/PROG/UDALA	5
14	GRANADA POL.	URTUELLA	SPRI/PROG/UDALA	20
15	SANTELICES-PETRONILA	MUSKIZ	SPRI/PROG/UDALA	13
16	INDUSTRIALDEA	ELORRIO	SPRI/BFA/UDALA	5
17	BASOKOETXE POL.	IPAZTER	BFA	9
18	BOROA POL.	ZORNOTZA	BFA	108
19	ZUBIETA POL.	ZORNOTZA	BFA	35
20	ENPRESA-ZENTROA	ERANDIO	SPRI/UDALA	13
21	INDUSTRIALDEA	MUNDAKA	SPRI/UDALA	10
22	INDUSTRIALDEA	MALLABIA	SPRI/UDALA	12
23	ARTXUBE	GUENES	BFA	15
24	KANPOKO PORTUA	SANTURTZI - ZIERBENA	BILBOKO PORTU A.	390
25	INDUSTRIALDEA	PORTUGALETE	SPRI/UDALA	5
26	BIDASOA POL.	ARTEA-ARANTZAZU	SPRI/UDALA	27

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORU PUBLIKOA
SORTZEKO ESKU-HARTZEAK
GIPUZKOA

	JARDUNA	UDALERRIA	ERAKUNDE SUSTATZAILEA	AZAL. GORDINA HA
1	TEKNOLOGI ELKARTEGIA	DONOSTIA	SPRI/GFA/UDALA	50
2	ZUATSU POL.	DONOSTIA	SPRI/GFA/UDALA	14
3	INDUSTRIALDEA	OÑATI	SPRI/GFA/UDALA	3
4	INDUSTRIALDEA	ARETXABALETA	SPRI/GFA/UDALA	5
5	INDUSTRIALDEA	OIARTZUN	SPRI/GFA/UDALA	1
6	INDUSTRIALDEA	ZARAUTZ	SPRI/GFA/UDALA	1
7	INDUSTRIALDEA	AZKOITIA	SPRI/GFA/UDALA	8
8	INDUSTRIALDEA	ELGOIBAR	SPRI/GFA/UDALA	4
9	INDUSTRIALDEA	LASARTE-ORIA	SPRI/GFA/UDALA	2
10	INDUSTRIALDEA	ORDIZIA	SPRI/GFA/UDALA	5
11	INDUSTRIALDEA	ZUMARRAGA	SPRI/GFA/UDALA	4
12	INDUSTRIALDEA	IRUN	SPRI/GFA/UDALA	10
13	INDUSTRIALDEA	MENDARO	SPRI/GFA/UDALA	2
14	201 POL.	OLABERRIA	UDALA	9
15	S.3 POL.	URRETXU	UDALA	10
16	ABENDAÑO POL.	ZARAUTZ	GFA/UDALA	19
17	IBARLUZE POL.	HERNANI	SPRI/GFA/UDALA	6
18	MIJOA POL.	MUTRIKU	SPRI/GFA/UDALA	5
19	INDUSTRIALDEA	LEGAZPI	SPRI/GFA/UDALA	1
20	INDUSTRIALDEA	LAZKAO	SPRI/GFA/UDALA	6
21	ERRATZU POL.	URNIETA	SPRI/GFA/UDALA	35
22	GUARDI POL.	IDIAZABAL	UDALA	7
23	TXIRRITA-MALEO POL.	ERRETERIA	SPRI/GFA/UDALA	18
24	MAISTI-LOIDI POL.	ERRETERIA	UDALA	21
25	BASARTE POL.	AZPEITIA-AZKOITIA	UDALA	11
26	ZAISA	IRUN	GFA/UDALA	19
27	ARRETXE-UGALDE POL.	IRUN	SPRI/GFA/UDALA	20
28	ORBEGOZO POL.	HERNANI	SPRI/GFA/UDALA	15
29	GOROSTIAGA POL.	ZUMAIA	UDALA	20
30	SASINENA POL.	ZESTOA	SPRI/GFA/UDALA	38
31	DANONA POL.	AZPEITIA	SPRI	2
32	INDUSTRIALDEA	BERGARA	SPRI/GFA/UDALA	10
33	INDUSTRIALDEA	ARRASATE	SPRI/GFA/UDALA	4
34	AZITAIN POL.	EIBAR	SPRI/GFA/UDALA	15
35	ALBITXURI POL.	ELGOIBAR	SPRI/GFA/UDALA	20
36	LANBARREN POL.	OIARTZUN	SPRI/GFA/UDALA	56
37	LINTZIRIN GAINA POL.	OIARTZUN	SPRI/GFA/UDALA	16
38	APATTA POL.	IBARRA-LEABURU-TOLOSA	SPRI/GFA/UDALA	50
39	INTXAUSTI POL.	ZEGAMA	SPRI/GFA/UDALA	2

